


Larry Page eta Sergey Brin, **urre** bilatzaileak

Urrezkoak egin dira. Zortzi urteren buruan, interneteko bilatzaile soil bat munduko orri bisitatuena eta website-kopuru handiena kudeatzen duena izatea lortu dute. Larry Page eta Sergey Brin ikasle Estatu Batuarrak izugarri aberats egin dira Google-ri esker. Proiektua, beste hainbat bezala, baliabide gutxirekin sortu zen, baina gazte hauen indarrak edozein eragozpen gainditzeko kemena eman zien.



Larry Page eta Sergey Brin.

Pagek eta Brinek 1995eko udaberrian ezagutu zuten elkar, Stanford-eko Unibertsitateak bertako Informatikako doktoretzarako hautagaien zat antolatutako ekitaldi batean. Zenbait hilabete beranduago, unibertsitate horretarako liburutegi digitaleko proiektu batean lanean hasi ziren. Pagek web-diseinua menderatzen zuen eta Brinek datuen tratamendua eta matematika. Biek elkarlanean, Interneten datuak bilatzeko algoritmoei buruzko azterketak hasi zituzten.

Larry Page 1972an jaio zen eta bere aitak, Michigan-go Estatu Unibertsitateko Zientzia Informatikoetako irakasleak, txikitatik ordenagailuekiko zaletasuna irakatsi zion. Aitaren bideari jarraituz, ohorez graduatu zen Informatika Ingeniaritzan lizentziatu bezala Michiganan. Oso azkarra zen, eta Lego izeneko haurrentzako eraikuntza-jokoan oinarrituta, injekzio-inprimagailu programagarria fabrikatu zuen. Sergey Brin, berriz, Moskun jaio zen 1973. urtean. Hau ere ohorez lizentziatu zen Matematika

Zientzietan eta Informatika Zientzietan Marylandgo Unibertsitatean. National Science Foundation erakundearen graduondoko unibertsitatebeka, eta Enpresa Institutuko enpresen administrazioan ohorezko masterra eman zizkieten. Bi curriculum horiekin ez zen harritzekoa, interneten historian izandako informatika-esperientzia harrigarriena eurek asmatzea.

Hasieratik bi gazteek interneteko mundu zabala antolatzeko zuten asmo hura, 1996an gauzatzen hasi ziren BackRub bilatzailea garatu zutenean. Bilatzaile hau, Stanford-eko ikasleek eta irakasleek erabili zuten lehendabizi. Urte bete beranduago BackRub Googlen bilakatu zen. Izena, 'googol' hitz ingelesetik dator, eta hamar ber ehun (10¹⁰⁰) zenbaki esponentziala definitzeko erabiltzen dute. Denbora gutxira, Pagek eta Brinek Google.com domeinua erregistratu zuten.

1998. urtearen hasieran orria garatzeko hainbat eskaintza izan zituzten arren, ez zuten bat bera ere onartu. Horregatik euren enpresa sortzea erabaki zuten. Horrela, Larry Pageren unibertsitateko logela aukeratu zuten lantoki bezala. Brinen logela berriz, bestearen ondoan, bulego finantzario bihurtu zen. Googleren jarduera asko hazi zen, eta bi gazteek baliabide informatiko gehiago behar zituzten milioika byte-ren mugimenduak kudeatzeko. Une horretan Andy Bechtolsheim ezagutu zuten, Sun Microsystems-eko sortzaileetakoa eta Cisco Systems-eko lehendakariordea. Honek, 100.000 dolarreko lehen txekoa sinatu zien.

1998. urtearen erdialdean Googlek Netscape-ko zuzendari-ohi baten diru-laguntza jaso zuen, eta enpresa, Larryren eta Sergeyren lagun batek Menlo Park-en (Kalifornia) alokatu zien garaje batean jarri zuten. Enpresak, baliabide tekniko gehiagorekin eta langile batekin, urte horretan Interneteko 24 milioi orri katalogatu zituen eta eguneko 100.000 kontsultara heldu zen.

Larry Page
1972an jaio
zen eta bere
aitak,
Michigan-go
Estatu
Unibertsitateko
Zientzia
Informatikoeta
ko irakasleak,
txikitatik orde-
nagailuekiko
zaletasuna ira-
katsi zion.



Hurrengo urtean, enpresak zortzi langile zituen eta eguneko milioi erdi bilaketa erregistratzen zituen. Horrek eraginda, egoitza Palo Alto-ko zona teknologikora eramatea erabaki zuten. Etorkizunerako ikuspegi ezin hobearekin, bi gazteek RedHat etxearekin lehen kontratu komertziala sinatu zuten. Etxe honek Linux sistema eragilea eman zien Googleren zerbitzarietarako. 1999. urtean ere, kapital arriskuko fondo handiak konpainia honetara zuzendu ziren eta, finantziario egokiaren bidez, behin betiko laguntza eman zioten.



Gaur egun, Sareko bilatzaile ezagunenak 2.500 langile -gehienak akziodunak-, eta herri eta hizkuntza askotan listatutako 6.000 milioi orri baino gehiago ditu. 32 urterekin, enpresaren bi sortzaileak, informatika-sektoreko aberats gazteenak bihurtu dira, batez ere 2004. urtean konpainian zituzten akzio asko saldu ondoren.

2004ko abuztuaren 19an kotizazio-merkatuetan sartu zen enpresa, New Yorkeko Burtsako Nasdaq indize teknologikoaren barne. Akzio bakoitza 85 dolarretan jarri zuten salgai, kotizatzen hasterako 100 dolar balio zuten eta saioak aurrera egin ahala 200 dolarren gainera jarri ziren. Horrek eraginda, enpresa 28.000 milioi dolar balio izatera heldu zen; sekulako eromena izan zen, negozioa, unibertsitateko bi ikasleren eskutik zazpi urte lehenago sortu zela eta finantza-merkatuetan oraindik, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran parketak kolokan jarri zituzten 'punto.com' konpainien porrotaren beldurra zegoela kontuan hartzen badugu. Baina Pageren eta Brinen gogoari esker, Google sinplea web-munduko altxor irrikatuena bihurtu da, eta itxuraz epe ertainera ez dago urrezko egin diren bi gazteek sortutako bilatzaileari itzala egingo dion ezer.

Sergey Brin,
berriaz, Moskun
jaio zen 1973.
urtean. Hau ere
ohorez
lizentziatu zen
Matematika
Zientzietan eta
Informatika
Zientzietan
Marylandgo
Unibertsitatean.